

Literatur politikaz eta ekonomiaz globalizazioan. Sarrionandia, kanona, sariak, merkatua eta multikulturalismo kritikoa

(On Literary Policy and on the Economy in the
Globalization. Sarrionandia, cannon, prizes, market
and critical multiculturalism)

Gabilondo Alberdi, Joseba
Michigan State University. Dept. of Romance and Classical
Languages. B640 Wells-Hall. AEB

Jaso: 2012.06.08

BIBLID [ISSN: 1137-4454, eISSN: 2255-1050 (2012), 27; 45-66] Onartu: 2012.12.28

Artikulu honek Joseba Sarrionandiaren lana eta bereziki bere Moroak gara behelaino artean? (2010) aztertzen ditu globalizazioak eta merkatu neoliberalak euskal kulturara eta literaturara ekarri dituen aldaketen argitan. Literatura anglosaxoiaren globalizazioa aztertu ondoren (Morrison, Rushdie, Rowling, D. Brown), artikuluak euskal literaturaren "beste-tzea" aurkezten du globalizazioaren eragin nagusi bezala (Atxağa, Uribe; Bestea kanon bezala). Artikuluak amaitzen du defendatuz Sarrionandiak bestetzearen eskakizun globalari ekiditen diola bere lanean eta, are, bere azken lanean, Moroak gara behelaino artean? (2010) gainera alternatiba bat proposatzen duela: multikulturalismo kritikoa, zeina Zizek eta Galfarsororen tesien aurka doan.

Giltza-Hitzak: Sarrionandia. Euskal literatura. Globalizazioa. Kanona. Sariak. Merkatua. Bestea. Bestetzea. Multikulturalismo kritikoa.

Este artículo analiza la obra de Joseba Sarrionandia y, especialmente, el ensayo Moroak gara behelaino artean? (¿Somos moros entre la niebla?) (2010), a la luz de los cambios aportados por la globalización y el mercado neoliberal a la cultura y a la literatura vasca. Tras analizar la globalización de la literatura anglosajona (Morrison, Rusdie, Rowling, D. Brown), el artículo presenta la otrificación de la literatura vasca como principal influencia de la globalización (Atxağa, Uribe; El Otro como canon). El artículo concluye defendiendo que Sarrionandia evita la exigencia global de otrificación en su obra y, además, en su último libro ¿Somos moros entre la niebla? (2010), propone una alternativa: el multiculturalismo crítico, algo que va en contra de las tesis de Zizek y Galfarsoro.

Palabras Clave: Sarrionandia. Literatura vasca. Globalización. Canon. Premios. Mercado. El otro. Otrificación. Multiculturalismo crítico.

Cet article analyse l'œuvre de Joseba Sarrionandia et spécialement l'essai Moroak gara behelaino artean? (Sommes-nous des maures dans le brouillard?) (2010), à la lumière des changements apportés par la globalisation et le marché néolibéral à la culture et à la littérature basque. Après avoir analysé la globalisation de la littérature anglosaxonne (Morrison, Rusdie, Rowling, D. Brown), l'article présente la autrification de la littérature basque comme principale influence de la globalisation (Atxağa, Uribe; l'Autre comme le canon). L'article conclut en défendant le fait que Sarrionandia a évité l'exigence globale de transmutation dans son œuvre et que, de plus, il propose une alternative dans son dernier livre ¿Somos moros entre la niebla? (2010): le multiculturalisme critique, ce qui va à l'encontre de les thèses de Zizek et Galfarsoro.

Mots-Clés : Sarrionandia. Littérature basque. Globalisation. Canon. Prix. Marché. L'autre. Autrification. Multiculturalisme critique.

1. GLOBALIZAZIOA

II. Mundu Gerra eta gero Europako kultur hegemonia mundiala Estatu Batuetara trasladatu bada, globalizazio izena hartuz, Euskal Herrian oraindik ez dugu aldaketa geopolitiko honen gainean teorizazio zehatzik egin, salbuespenak salbuespen (Etxeberria 2008). Gabezia hau oso da kezka-garria, hemendik urte batzuetara mugimendu historiko "hegeliar" honek Txinan topa baitezake bere hurrengo pausagunea; soziologo biren lanak behin eta berriro errepikatzeak (Bauman 1998, 2000; Beck 2000) ez du gabezia hau konpontzen.

Globalizazioak, nire aburuz, bost ondorio garrantzitsu izan ditu kulturaren geopolitikarako. Alde batetik hegemoniaren hizkuntza frantsesetik ingelesera iragan da, ia 250 urtean Frantziak eta frantses hizkuntzak izan duten hegemonia amaituz (Hollier 1989; Casanova 2007: 45-81). Bigarrenik, modernitatearen proiektu europarra krisian sartu da, eta kapitalismo demokratiko neoliberalak hartu du bere lekua diskurtso hegemoniko bezala (Fukuyama 1992; Harvey 2005), ezkerrek zituen proiektu sozialista eta marxistak irauliz, bai lehen zein hirugarren munduan —hala kultura ere ilustrazio modernoaren proiektutik sakabanatu da eta Adornoren deiadarrari erantzun dio «Auschwitz eta gero poesia idaztea barbaroa da» (1983: 34). Hirugarrenik, eta poesiarren desagerpen adornoarrari jarraikiz, globalizazioak masa kultura kontrajarri dio kultura garai eta beherearen artean zegoen zatiketari (Jameson 1991); kultura "demokratikoago" honetan oraindik ere bada goi kultura, baina jada ez da hegemonikoa eta, ironikoki, genero bihurtu da, detektibe eleberriak edota kultura punka bezala. Kultura masibo honen ezaugarri berezia desira eta kontsumo artean sortu duen berdintasun axioma da (Stearns 2006). Laugarrenik, eta hemen eztabaida amaiezina izan daiteke, lehen munduak subjektu moderno bakarrari subjektu anitzagoa, multikulturala, kontrajarri edota hobetsi dio, giza eskubideen dinamika mendealdararen ondorio diren gatazka biopolitikoek arrakastarik izan duten heinean (Foucault 1980; Hall 1996, 2011; Hardt eta Negri 2000), edota boterea hedatzeko mekanismo zoliago bihurtu diren heinean (Badiou 2001; Zizek 2000). Azkenik, orain dela gutxi arte hirugarren mundutzat hartu ditugun herriek, eta zehazkiago bertako eliteek, diskurtso ez-modernoak hedatu dituzte beren indar eta presentzia globala aldarrikatu eta botere-oreka multipolar batera goazela azpimarratzeko (Amsden 2003; ikuspegi esentzialista batetik, Huntington 1997). Azken mugimendu honen ondorioz, adibidez, Txina bihurtu da munduko arte salmentaren erdigune berri, New Yorken aurretik. Alabaina oraindik ere literatura, zine eta musika txinatarrek ez dute botere multipolar honetan sarrera erabakitzailerik izan (Hong Kongeko arte martzialen zinema salbuespen).

Beraz, testuinguru honetan, begira diezaiozun literatura globalari, eta zehazkiago bere itxuratze hegemonikoari, hots, literatura anglosaxoiari. Literatura garai edo kalitatekoari begiraturaz, *New York Times*-ek 2006an argitaratu zuen «Azken 25 urteetako fikzio amerikarreko lanik onena zein da» artikuluan, Toni Morrison-en *Beloved* (1987) atera zen gailen, 200 kritikoa, idazle eta editoreri egindako galdekizunean (The New York Times d.g.); Morrisonek 1993an irabazi zuen literatur Nobel saria. Era berean, Britainia Handian, Booker saria kontutan hartzen bada, 2008an "Booker-en Booker-a" eman

zuten, sariaren 40. urteurrena ospatzeko. Hots, Booker saria jaso dutenen 40 lanetatik, zein den Booker-ik garrantzitsuena erabakitzerakoan, Salman Rushdie-ren *Midnight Children* (1980) atera zen hautaturik (The Man Booker Prizes 2008). Hala, bi eleberri garaien eta kanonikoen hauek, *Beloved* eta *Midnight Children*, estatu edota erreinu bakoitzeko gertaera historikorik traumatikoenei erreferentzia egiten diete, esklabutza amerikarra eta kolonialismo britainiarra Indian, hurrenez hurren. Beraz konkludi dezakegu kanon garaia, gero eskoletan irakasten dena, gutxiengo talde sozialen eta berauen opresioaren inguruan, beren subjektu eta ahotsen inguruan, eratzten dela. Laburki, kanon garaia Bestearen kanona bihurtu da (Bona eta Maini 2006).

Era berean, literatura salduen eta herrikoienari begiratzen badiogu, J.K. Rowling-en *Harry Potter* seriea genuke lehenengo (1997-2007; lehen lau liburukien 200 milioi kopia saldu ziren 2003rako 55 hizkuntzatan, Harmon 2003), bigarrenik Tolkien-en *Lord of the Rings* (1954-55) zaharragoa (200 milioi ale 2007 arte, 39 hizkuntzatan; Gilsdorf 2007), eta hirugarrenik Dan Brown-en *The Da Vinci Code* (2003; 80 milioi ale saldurik 2009 arte, Reuters 2009).

Lehen momentu batean, autore behere hauek Morrison-en eta Rushdie-ren oso diferentziaz direla badirudite ere, guztiak kultur logika global beraren bi alde simetriko edo osagarri bezala begizta daitezkeela defendatu nahiko nuke. Lan arrakastatsu hauetan ere Bestearen errepresentazioa da kinkan. Izan ere hiruretan azaltzen da mundu pagano bat, non pertsonaia bakar batek, jakintza sekretu eta pagano batez horniturik, salbatzen duen mundua. Hemen, jakintza sekretu eta mundu pagano horiek gure eguneroko bizitza globalizatu eta teknologikoei kontrajartzen zaizkienez, hots, mundu magiko-erlijiosoak edo alternatiboak direnez, balirudike Bestetasun orokor baten aurrean gaudela, gure eguneroko bizitzari errotik kontrajartzen zaiona, eta beraz lotura historiko zuzenik ez duena, Morrisonenean edota Rushdienean ez bezala.

Alabaina, jakintza errotik desberdinak, sekretuak eta bestelakoak diskurtso erdigunetzat erabiltzen dituzten idazlan behere hauek, kontraesankorki, oso bestetasun historikoak azaltzen dituzte. Lehen bietan, *Harry Potter* eta *Lord of the Rings*, XIX. mendeko gizarte britainiar biktoriarra dugu eta haren erromantizismo berantiarra (Keats, aurre-Rafaelitak, eta abar) sortu zuen mundu mitologikoa, hots, imaginazio britainiar biktoriar inperialistaren nostalgiaz idatzitako lanak ditugu.

Ikuspuntu iparamerikar batetik, gainera, nostalgia inperialista postkoloniala ere adierazten dute idazlanok. Izan ere, norberaren inperialismo globala nostalgiaz ikusteko, beti da gozagarria, norbera kolonizatu duen beste inperio zaharrago eta indargabetu horri (britaniarrari) begiratzea, nola-halako *jouissance* postkolonial batean, non azken fantasia zera den: inperialismo iparamerikarra eta bere hegemonia globala, neoliberalismoa, ez direla existitzen. “Egiazko inperialismoa,” jakintza sekretu eta bestelako baten ezagutzaz bakarrik uler baitaiteke, eta hori Inperialismo Beste bat da: britainiar-biktoriarra, era paganoan jantzia. Alegia, inperialismo iragan bat (britainiarra) aurkezten du literatura honek, irakurri ahala, irakurleak ulertu eta kontrolatzen

duen fantasia sortarazten diona —eta globalizazio garaikidearen ulertezintasun konplexuari (amerikarra) kontrajartzen zaiona, zeina ez den aipatzen edo bakarrik hasieran eta amaieran. Hots, literatura honek inperialismo britaniar iragana ulergarri bihurtzen du, baina amerikarra ez, eta beraz amerikar-egungoa (globalizazioa) ezkutatu egiten du britaniar-iraganaren alde. *Da Vinci kodea*-ren kasuan ere literatura britaniar gotikoak Italiari eta Espainiari eman dion itxura beldurgarri eta fantasmatikoa dugu abiapuntu, kasu honetan Opusarekiko fixazioz eguneratua. Eta, besteak beste, Frantziako erreinuaren zentraltasuna eta Errenazimentu italiarraren erakarpena nahasten dira.

Beraz literatura ingeles garai eta beherea simetrikoki osagarriak dira, izan ere biak Bestetasunaren logikan oinarritzen dira. Literatura garaiaren kasuan, bestetasunak historikoa ematen du eta literatura beherearen kasuan erabat ahistorikoa eta errotik diferentea errealitatearekiko. Alabaina bietan historia amerikar eta britaniarraren errepresentazio inperialistak ditugu, subjektu zapalduaren edota inperialismo beraren ikuspuntutik emanak. Are, bietan dugu fantasia politiko bera, historia hori ulertzen eta kontrolatzen dugun fantasia; irakurlea berriro ere izaki politiko oso bihurtzen duen fantasia ez-politiko.

Azkenik, eta hau gence globalizazioaren indar biopolitikoaren neurria, aurreko inperialismo moderno eta ez-moderno gehienek ez-bezala (espainiarrak, txinarrak, britaniarrak, otomanoak...), kultura honek (literaturan hasten dena baina gero itzulpen zinematikoa, grafiko, digital, eta abarrak ezagutzen dituenak, halako software kultural bat bihurtuz zeina edozein hardware-etan heda eta kontsuma daitekeen), irakurlea gizabanako bezala interpelatzen du eta azken batean gizabanako izatearen fantasia sortzen dio: liburua erosi eta irakurtzen duen heinean, irakurleak aktantzia global bat duen fantasia sortzen dio literatura honek. Bestela esanda, erostearen eta irakurtzearen ekintzak bihurtzen dira subjektu bihurtzeko eragiketa nagusiak globalizazioan, politika forma nagusia. Beraz kontsumitzailea bihurtzen da, literatura hauen arabera, subjektu global azkena, subjektu globala *par excellence*, desira global baten jabe bihurtzen den fantasia politikoaren ondorioz. Nestor García Canclín eman du, zoritxarrez, efektu honen zilegitze teorikorik tamalgarriena, “kontsumitzaia on da pentsatzeko” adierazi duenean (2001: 38).

Honek era berean oso efektu hierarkikoa sortzen du: tradizio nazionaletan ez bezala, globalizazioan logika inperialista bakarrik balio duenez (anglosaxoia edota amerikar-britaniarra), subjektu kontsumitzaile globalaren fantasia politikoak egituratzeko, beste tradizio nazional guztiak balio gabetzen ditu logika horrek. Eta are, jakintza sekretu eta oso baten logikan oinarritzen den heinean, idazlan oro ere konpetizio zuzenean sartzen da beste edozein idazlanekin, irakurleak ezin baitu jakintza sekretu eta orokor ugari onartu aldi berean, batez ere jakintza hau serializaturik ematen bada (7 eleberri *Harry Potter*-en kasuan, 3 ale *Lord of the Rings*-ean eta abar...). Beraz literatura global honek oso kanon eskusibo eta hierarkikoa sortzen du, azken batean lan bakarria ezartzen duena kanon global honen gailurrean¹. Hala, kanon anitzago

1. Liburu bakar batean unibertsoaren ezagutza biltzeko eta kontenitzeko amets erromantikoa bere buruan irauliz.

eta historikoago bat bagenuen literatura nazionaletan, idazlan ugari onartzen zituen, kanon globala ideialki, idazlan bakarreko kanona dugu eta, beraz, azken batean, kanon aristokratiko bat, zentzu literalean. Kultura globala oso da hierarkikoa, estrukturalki, diskurtsiboki eta ekonomikoki².

2. EUSKAL LITERATURA: KONTRAESAN NAGUSIA

Euskal Herrian ere, globalizazioa (eta hein batean postmodernitatea) 1990ko hamarkadan hasten da, euskal kultura merkataltzen den ahala, ondorioz logika neoliberalak indarra hartzen duelarik. Euskal literaturaren merkataltzea *Obabakoak* (1988) eta gero sortzen da eta beronen efektu bezala, nahiz eta ez-hegemonikoki emakumeen literaturak zegoeneko literatur eredu hau bilakaturik zuen. Eredu hau hegemoniko bihurtzen den heinean, merkataldu edo komertzializatu egingo da eta kanonizatu (Botrel, Cabello, et al. 2011). Oraindik ere, merkatu dinamikan emakumezkoen literaturak oso era egokian funtzionatzen badu ere, literatur garai bezala kanonizatu dena gizonen literatura da (Atxaga eta Uribe)³, literatura behean emakumezkoak nagusi badira ere (Karmele Jaio, Toti Martinez de Lezea bere euskal itzulpenetan, eta abar). Bestalde Guggenheima eta euskal sukaldaritza izango genituzke globalizazio hegemoniko neoliberalaren beste bi ordezkari nagusiak —sorreran kultura garaikoak izanik ere, kultura masifikatuan gero alderdi guztietara hedatu direnak. Futbolak, oraindik ere euskal taldeen dominazio ezak eta selekzio nazional bat ez izateak definituta datorrenez, ez du sukaldaritzaren eta arkitekturaren efektu hori izan, bere eragina kulturalki masiboagoa eta, beraz, garrantzitsuagoa bada ere.

Atxagaren eta Uriberen kasuak⁴, euskal literatur kanonikoaren bi zutarri nagusiak, hizkuntza ingeleserako aztertu ditugun kasuen aldean konplexuagoak dira, han literatura garai eta behean bezala desberdinu ditudanak, hemen bateraturik gertatzen baitira. Ez da ahaztu behar Atxagaren zein Uriberen literatura, hitzaldi eta performantzeen bidez, behetik gora sortutako literatura dela, eta beren lanak liburu-dendetako apaletara iritsi zirenerako jada arrakastatsuek zirela. Hots fenomeno herrikoiak eta masiboak dira. Alabaina, eta hemen dago gakoa, bi kasuetan, idazle hauen literatura kanpoko instituzioek, kritikoez eta irakurleek «txit euskaldun» bezala hartu eta irakurtzeko egituratuak eta paratuak izan direla baieztatu behar dugu. Bi literatura hauek, euskalduntasunak suposatzen duen Bestetasun edota gutxiengo-herri ikurraz saltzeko idatziak izan dira, hots, kanpotik euskalduntasunaren bestetasuna lan hauen bidez erosi eta irakurri ahal izateko. Laburki esateko, idazlan global bezala saldu eta irakur-

2. Eta maskulinitate berri global eta epiko bat, beti ere umetasunetik gertu, zilegiztatzen du.

3. Unai Elorriaga ez dut kontutan hartu, nahiz eta Narratiba Sari Nazionala irabazi. Izan ere, bere lanak errealitate honen alderdi ezezkorra azaltzen baitu: Besteari noizbait saria eman beharren errealitate politikoa, zeinak, Beste ideiala topatzen ez duenean ere, behar politikoa dela medio, bere objektua topatzen duen. Urte hartan aurkeztu ziren beste lan batzuek “kalitate” hobea zutela ez dago eztabaidatzerik, hala nola Javier Cercas-en *Soldados de Salamina* (2001) erreazionaria.

4. Ramon Saizarbitoriaren lanarentzat, ikus argitaratzearen dudan nire *New York - Martutene* (2013).

tzeko paratuak izan dira. Hala, Rowlingen arrakasta dute⁵, eskala euskaldun batean, eta era berean Rushdieren edota Morrisonen bestetasun estatusa eta «kalitatea». Lan hauen lehen irakurle kanonikoa Madril/Bartzelona da, baina azken batean, Madril/Bartzelona pasabide baino ez dira New Yorka eta Parisera ailegatzeko—tartean AEBko espainierazko departamentu hispanistak eta orain Etxepare Institutua erabiltzen badira ere. Maila honetan, kanon honen aurkako kontsentsu kritikoa haziz doa (Apalategi 2001; Galfarsoro 2008; Atutxa 2011).

Jokin Muñozek ere bere “Ohe azpia” artikuluan, halako zerbait jada aurre-ratu zuen 2005ean:

Hara: zerk erakartzen edo erakarriko ditu kanpoko irakurleak gure literaturara? Zer eskain diezaiekegu autopistetan ibiltzeaz gogaituta dauden kanpoko irakurleei? Jadanik euren hizkuntzetan irakurritakoa? Nobela beltza? Intriga historikoa? Alegia, gauza bera? [...] Zerk egiten du gure literatura “hemengo”, hizkuntzaren erreferentetik harago? Zerk definitzen digu hemengotasuna, hizkuntza ez bada? Orain, eta batez ere gure harresia erortzen denean, gure literatura definitu eta, aldi berean, harenganako interesa piztuko duena «La Cosa» da. Biolentzia politikoak eragindako kodigo existentzial hori, alegia. *Gure mitikotasuna, poetikotasuna, unibertsaltasunaren kontu hori Obabarekin batera agortu baitzaigu*. (2005: 101, nire azpimarratzea)

Dena den, aipagarria da Muñozen kasuan ere, “hemengotasun”-aren atzean, oraindik ere Bestetasunaren paradigma dagoela, eta biolentzia politikoa, Bestetasunaren hurrengo fase bat, eta ez kategoria horrekiko haustura, suposatuko luke. Muñozek ere ez du onartzen, “nobela beltza... gauza bera” aukera bat izatea, beste leku askotan bezalatsu.

Beste nonbait proposatu dut, idazlan hauek euskal errealitatea gutxiengo bezala, Beste bezala, aurkeztu eta saltzeko idatziak izan direnez, alegia, globalizazioari zuzendurik eta globalki saltzeko pentsaturik daudenez, ez direla euskal literaturaren barnean sartzen; hala, ez lirateke euskaldunak, espainiarrak eta globalak baizik (Gabilondo 2010: 232). Are, euskal irakurlegoari fantasia global neoliberal bat sortzen diote lan hauek: merkatu globalean subjektu neoliberalak garen fantasia. Errealitatea bestelakoa da: literatura honi jarraikirik, geure buruak Beste bezala aurkezten ditugun heinean eta hein horretan bakarrik izango dugu leku bat globalizazio hegemonikoan. Lan hauek kokatzen dute euskal literatura —eta, sinekdoke nazionalistaz, Euskal Herria— ez subjektu bezala, baizik eta objektu bezala, salgai bezala: ordena neoliberal global ipar amerikarra indartuko duen salmenta objektu bezala⁶.

5. *Obabakoak*-ek 40.000 aletik gora saldu du euskaraz, 800.000 hitzun dituen hizkuntza batean. Proporzio honen arabera, euskaldunen %5ak erosi du *Obabakoak*, Rowling-en salmenten proportzioa baino askozaz ere handiagoa delarik.

6. Aurrerago azalduko dugun Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean?*-en ere, ideia bera azaltzen da, Bestetasunaren diskurtsoan sortzen den euskal idazlearen globalizazioaz: “Gainera, gaztelateratu egin behar izango du, eta benetako itzulpena egin nahi badu, berak egin beharko du. ‘Idazle’ moduan besteak baino gutxiago ez dela frogatzeko. Hala, gaztelera azko idazle bihurtuko da bide batez” (2010: 535).

Fenomeno honi “euskal fantasia globala” edo EFG dei geniezaioke. Gure gabezia globala —gure herri txiki eta ia antzemanekinaren kulturak garrantzia globalik ez duen trauma— garaitu dugun fantasia politikoa eskaintzen digute idazlan hauek. Alabaina, EFG honek sortarazi ditu beste bide eta erlazio globalak, Madrildik eta New Yorketik pasatzen ez direnak, Bilbao-New-York lotura fantastikoa eteten dutenak, eta Italian, Errusian, edota Alemanian kokagune idoro dutenak⁷. EFGak ez bezala, beste bide eta erlazio hauek, ordena neoliberalari zuzenean erantzuten ez dioten heinean, euskal globalizazio historikoago bat suposatzen dute. Kasu hauetan euskal globalizazioak kapitalismoaren eta neoliberalismoaren zirkuituak eta norabideak alda ditzake edota, hitz zatar bat erabiltzeko, desterritorializatu (Deleuze eta Guattari 1985). Hots, desira euskaldun global batek hegemonia kapitalista neoliberalaren bakartasun edo eskusibitatea (bakarra izatea) eta bere fluxuen norabideak eralda ditzake, globalizazioaren ontologia kolokan jarrita, alegia, bestelako globalizazioak ere badaudela aldarrikatuz. Honek gainera azken efektu interesgarri bat ere badu: orain artean Euskal Herria estatu espainiarren aurka eta haren irudiz pentsatu bada, beronen hegemonia dela medio, euskal kulturak politika ere esparru historiko moderno horretatik ateratzen du, eta, estatu euskaldun bat paradigma espainiar edota europar moderno baten barnetik pentsatu beharra kinkan jarritz. Hemen ere fantasia zera baita, euskal estatu neoliberal bat pentsatzea, gehienaz aurrerakoa izango den sozial-demokrazia baten esparrutik⁸.

3. SARRIONANDIA

Testuinguru honetan, interesgarria da Sarrionandiaren lana aztertzea eta, berezikiago, beroni emandako Euskadi Literatur Sariaren eskandalua (saiera modalitatean)⁹. Jakina den historia bat errepikatu gabe, esan dezagun Sarrionandia Pott taldekoa izanik, orduko poesia eta kontagintza Atxagak bezainbat aldatu zituen heinean, eta bere lanaren “kalitatea” beste honen antzerakoa ere izan zen heinean halaber, erabat kanonikoa izatera deitua zela. Euskal Herriaren estatus kanoniko bat izan dezakeela onargarria bada ere, unibertsitatean, gobernuko instituzio kulturaletan (irakaskuntzaren salbuespenarekin) eta euskal literaturaren globalizazio hegemonikoan izan duen leku marjinalak, erabat ez-kanonikoa dela adierazten digu alabaina. Oraintsu irabazi duen Euskadi Literatur Sariak are argiago utzi du bere lanak instituzio kulturelekin duen erlazio gatazkati eta zaila. Jakina, lehen momentu batean erantzunak erraza dirudi: 1981ean atxilotu eta preso sartu zutenetik, eta zehazkiago 1985ean Martuteneko kartzelatik ihes egin zuenetik, bere egoera estatu espainiarrean legalki eta politikoki oso aldakorra eta konplexua izan

7. Italian Gran Via argitaletxea dago, Alemanian Blumenbar eta Verlag Libertäre Assoziation, eta Errusian Gernika.

8. Adibidez, 2012ko maiatzean (EH Bilduk) azaldutako ezkerreko plataforma subiranistaren (Aralar, Alternatiba, EA, Ezker Abertzalea) agenda ekonomikoa, sozial-demokraziaren barnean lerratzen dela konkludi daiteke (Berria 2012).

9. Modalitate hau berria da eta Sarrionandia da saria jasotako bigarren idazlea.

da, Euskadi Literatur Saria eman aurretik estatuaren fiskalak plazaratu behar izan zuen agiriak argi uzten duen bezala (Rodríguez Bilbo 2011). Sarrionandia oraindik Euskal Herrian publikoki azaldu ez den faktua ere egoeraren konplexutasuna areagotzen du.

Alabaina, urte hauetan guztietan bere lanak Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du argitaratzeko orduan eta eskola liburutan oso zentralki aurkezturik azaldu da. Are, eta hemen hasten da arazoa gehiago konplikatzeko, bera izan zen hasieratik literaturaren politikarekiko autonomia aldarrikatu zuena. Jada 80ko hamarkadan, *Ni ez naiz hemengoa* (1985) eta *Marginalia* (1988) bezalako lanetan, idazleak edozein boterekiko gorde behar duen autonomia eta independentzia argi azaldu zituen. Azkenik eta bere *Lagun izoztua* (2001) arte bederen, ez du borroka armatua gai zentralizat hartu, beti ere gai honi buruz mintzatu bada ere. Aitzpea Azkorbebeitiak dioen bezala,

Jokin Muñoz oraintsu arte gure literaturan euskal gatazkaren gaia jorratu ez omen delako kezu bazen ere, Sarrionandia —bederen— salbuespen dugu [...]; bere lanetan 'La Cosa' agertu agertzen da eta, gainera, ez bakarrik zeharka, era zuzenean [baina ez zentratean] trataturik baizik. (2006: 165)

Bere *Lagun izoztua* eleberrian ere borroka armatuaz zuzenean, erreferentzialki, hitz egin beharrean, haren ondoko atzerrialdi edo erbesteaz mintzatu da. Hots, borroka armatua ere eliptikoki tratatu du. Eta hain zuzen horregatik deritzot *Lagun izoztua*-ri hain garrantzitsu; izan ere Sarrionandiak eleberriari muzin egin baitio, hain zuzen edozein euskal autorek bere burua globalizatu eta kanonizatzeke heldu behar izan dion generoari. Saiatu denean ere, oso eleberririk eta poetikoa, ez-narratiboa, idatzi du, bere lanik onena inolaz ere kontsidera ezin daitekeena. Hots, Sarrionandiaren lanik finena beti ere fragmentuzkoa da, zatizkotasan hori gero poesia edota saio moduan azalduko badu ere, *Moroak gara behelaino artean?* (2010) barne.

Are gehiago, euskal gatazkari buruzko lan monografikorik ez badu ere, balirudike bere idazlanean aberriaren edota euskal kulturaren ideia edota imajinari finko bat izango lukeela Sarrionandiak; alabaina alderantziz da. Bere lehen liburutik, *Izuen gordelekuetan barrena*, lekutasunaren, aberriaren, eta oro har euskalduntasunaren oso kontzeptu mugikorra, aldakorra, eta, hein batean, kontraesankorra azaldu du. *Izuen gordelekuetan*, adibidez, etxerako itzulera narratzean, gaztaroko etxea hutsik topatuko du: panpina apurtuak biztanle dituen espazioa izango da etxea (1981: 142).

Liburu horretan bertan irartzen du harrez gero ezaguna egin den aforismoa: “Aberria hautatu egiten da / –eta emakumea– edo / bakardadeak edo besterik ezak / ezartzen derauku” (1981: 18), zeinak lehen irakurraldi batean baino konplexutasun handiagoa duen, izan ere, aukerak aberria errealtate ez-historikoki finkoa bihurtzen baitu, beste leku mugikor eta aldakor bat, zeina ezin den pentsaera modernotik definitu eta zilegitu. *Lagun izoztua*-ren amaieran ere, aberria eta nazioaren kokapena denbora arazo bihurtzen da, alegia, aberria errealtate denborala eta ez-espaziala bilakatzen da eleberrian:

Eta iraganera zoazelako sentsazioa izango duzu etorkizunera zoazen artean. Edukitako guztia galdu duzu, eduki ahal den baino gehiago zenuelako benetan, eta hala ere jakingo duzu izan daitekeen gauzarik behinena izango duzula oraindik, denbora.

Bai, denbora.

Eta zure mentura Ulisesena baino ederragoa izango da, edonora joanda ere, egundo egon ez zaren lekura itzuliko zarela. (2001: 433)

Azpimarratu nahiko nuke, Sarrionandiaren idazlanetan aberriaren finkotasun gabezia honek, Atxagaren edota Uriberen kasuan ez bezala¹⁰, Euskal Herria bestetzeko, Beste bihurtzeko, aukera desegin egiten duela, eta beraz globalizazioaren euskal fantasia politiko hegemonikoan sartzeko aukerak iraultzen ditu. Sarrionandiaren Euskal Herria ez da inoiz Beste, eta bere azken lanean azaltzen duen bezala, bestetze prozesu honen kontziente da eta beronen aurka idazten du, beste herri batzuek jasandakoa aztertuz eta Euskal Herriari buruz hitz egiteko erabiliz.

Eta halere, Sarrionandiak, Atxagak eta Uribek bezala, irakurlego leial bat sortu du, agian ezker abertzalearen inguruan kokatzen dena, baina kokatze hau balu ere, esplikatzen erraza ez dena, lehen eztabaidatutako bere lanaren konplexutasun geopolitiko eta formaren zatikakotasuna dela medio, eleberririk derrigorrez pasatzen ez baita. Ez dakigu oraindik Sarrionandiak berak erabaki zuen bere azken lana Euskadi Literatur Sariara aurkeztea ala hori argitaratzailearen erabakia izan zen. Ez dakigu era berean sariaren balio kulturalak ala ekonomikoak bultzaturik (edo biak) aurkeztu zen eta honek bere ikuspegi anti-instituzionala nola aldatu (ez) zuen. Baina nik uste dut Euskadi Literatur Sariak zerbait azpimarratu badu hori dela, hasieratik kokapen global bat duen Sarrionandiaren idazgintza —irakurlego leial bat ere baduena, eta halere kulturaren eta sariaren ibilbide instituzionaletik zentralki pasatzen ez dena— erabat kanonikoa dela, kanonizitate hori instituzioek hegemonikoki nola erabili ez badakite ere. Kontutan hartzekoa da, atzean dagoen historiaren zertzeladak ez badakizkigu ere, “Utikan Euskadi Saria” (2007) manifestua ez zuela Sarrionandiak zinatu. Hots, Sarrionandiaren saioaren eskandaluak euskal literatur kanonaren kontraesan eta arriskuak globalizazioan azaltzen ditu beste ezein idazlanek baino hobeto. Era berean, euskal globalizazio ez-hegemoniko baten bidea, norabide ugariaren artean, nondik joan daitekeen, azaltzen digu, eta Bestetasunaren globalizazio hegemonikoan euskal literaturak hartu behar ez duen norabideari nola ekidin ere eztabaidatzen du. Bere azken lanari, *Moroak gara behelaino artean?* (2010) begiratuz gero, Sarrionandiaren lanaren lorpenen eta kontraesanen ikuspegi are zehatzagoa izan dezakegu, bere aurreko lan guztia errerrospektiban ikustatzen lagun diezagukeena.

10. Atxagaren *Etiopia*-z ikusi nire *Nazioaren hondarrak* (2006) eta bere *Ziutateaz*-ez ikusi Atutxaren *Kanonaren gainean* (2011).

3.1. *Moroak gara behelaino artean?*

Alde batetik, bere aurreko idazlan guztiak bezala, autorearen irakurketa ugariren bateraketa da saio luze hau. Orain artean egin duen saiorik luzeena izanik, bateraketa honen mekanika are hobe ikusta dezakegu. Hots, Sarrionandiak Pott taldean dagoeneko sortu zuten literaturtasun beharrari atxikirik —hots, literaturaren autonomia aldarrikatzeak eragiten duen literaturarekiko erreferentzialtasunari atxikirik— *Moroak gara* ere irakurketen metaketa heterogeneoz muntatu du. Heterogeneitate horrek lanaren literaturtasuna are indartu du.

Saioa, ipar Marokon, amazigera (bereberra) nagusiki hitz egiten den eskualdeaz da, hots Arrifez, eta bertako jendeez. Gainera, saioak estatu espainiarrak bertan eginiko inkurtsio koloniala kontatzen du, historia horren ikuspegi zatikatu eta heterogeneoa emanez. Edozein historialarik emango lukeen iturri aniztasunetik harantzago, Sarrionandiak historia horren materialtasun heterogeneo eta bateraezina zatika paratuz aurkeztu digu. Hala, orientalistak, jeneralak, soldatuak, bertsolariak, apaizak, aktibistak, borrokako liderrak, kabiletako emakumeak, eta abar luze bat erakarriko du Sarrionandiak bere lanera, berauen ahotsak zuzenean irakurleak entzun eta irakur ditzan. Bereziki aipatzekoa da nola sasoiko euskal materialak erabiltzen dituen, hots, sasoiaren euskaraz idatzitako dokumentuak: eskutitzak, bertso-paperak, aldizkarietako artikulatuak, eta abar. Hala, euskara ez da bakarrik saio-idazlearen hizkuntza —eta hedapenez irakurlearena— baizik eta historia kolonial horrena ere halaber. Euskara bera historia kolonial honen materialtasunean txertatzen da, eta beraz, euskara bakarra izan beharrean —egungo distantziatik objektibo eta urrutiko den hizkuntza homogeneoa— historiaren heterogeneotasunaren beraren material bihurtzen da. Deigarri da, batez ere, Sarrionandiak aipatzen duen historia bat: Pedro Hilarion Sarrionandia fraidearen amazigera-gaztelera hiztegi amaitu-gabeko fitxak erre zirenean, beronek amazigeratik euskarara egindako itzulpenak desagertu zirela (2010: 294-303). Alabaina, Sarrionandiak euskara desagertu hori bera erreskatzatzen du, euskararen historizitate material honen azken zeinu desagertu baina oraindik ere bere ezkortasunean presente bezala. Azkenik, aipatzekoa da, Pott taldeak egindako poema/kantu baten aipamena ere badagoela, bere historia literarioa ere kolonialismoaren kritika den beste historia honetan materialki txertatuz (2010: 429). Guzti honen ondorioz, Sarrionandiak kolonialismo espainiarraren eta amazigeradun herrien kronika paregabea eskaini digu, gehienok hain zehazki ezagutzen ez genuen kronika. Sarrionandiak hain berezko duen zatikakotasun diskurtsiboaz baliatuz, kapitulu motzak eta gainera barne-zatiketaz hare gehiago mozten direnak eskaini dizkigu, Arrifren kronika materialki eta subjektiboki heterogeneoa maisukiro bilbatuz.

Ez dago Atxagaren *Zazpi etxe Frantzian* neokolonialarekin erkatzea bezalakorik, Sarrionandiaren ekarpen politiko-literarioa ulertzeko. Atxagaren eleberri afrikarrak, Conraden tradizio kolonialari jarraikiz, eta hizkuntza homogeneo bat erabiliz, literatura europar koloniala bihurtzen du berriro ere ardatz eta azken zeruertz diskurtsibo, subjektu afrikarren ahotsak eta errealtate heterogeneoa erabat isilaraziz, Atxagaren zeruertz obabar neorrularari berriro ere mozturro afrikar bat emateko. Aitzitik, Sarrionandiaren lanean, Conraden

literaturaren azken itxuraketa koloniala salatuz gainera (2010: 456-60), borroka antkolonialaren genealogia berri bat ematen zaigu, non Mohamed ben Abdelkrim azaleratzen den borroka antkolonialaren aurrekari bezala — nik uste gehienontzat pertsonaia ezezaguna zena saio hau irakurri arte:

Arrifeko Errepublika ezinezkoa izan zen 1925ean. Bi aldiren artean gatibu zegoen Abdelkrim. Beranduegi heldu zen Arrifen errepublika independentea fundatzera, botere kolonialistek estatu postkolonialen mapak jadanik marrazturik zituztenean. Eta goizegi ostera, Afrika iparralde guzian iraultza egiteko, artean Frantziak eta Espainiak amore eman eta alde egin beharrik ez zutenean. Hala ere, 1947an jada ikusten zen deskolonizazio borroken aitzindaria izan zela, eta Arrifeko gerla hura beste herri zapaldu askoren jarraibidea. Erresistentzia txiki bat ejerzito boteretsu bati aurre egiten. Mohamed ben Abdelkrimena eredugarria izan zen Tito, Mao-Tse-Tung, Fidel Castro, Ho Chi Minh eta beste askorentzat. (2010: 319)

Baina era berean, subjektu kolonizatuaren ahotsa eta ikuspegia azaltzen zaigu, beste inon baino hobea, bere diskurtso heterogeneoan, subjektu subalternoaren testigantza ere azalduz, hala nola Charles de Foucauld misiolari kolonialistarekin topatzen den emakume arrifiaren anekdotan:

Urteak geroago, hango emakume batek gogoratzen zuen 1907ko gosetean bere bost seme-alabei Charles de Foucauldek jaten eman zuela. Harrezkero, emakume horrek behin eta berriz egin zion Alari otoitz morabito kristaua musulman bihur zedin:

“Beldurgarria da pentsatzea ere” esaten omen zuen gero, “musulmana ez-izateagatik halako gizon ona infernura joan dela.” (2010: 173)

3.2. Arrifetik Euskal Herrira

Alabaina, Sarrionandiaren kontraesan nagusia, eta era berean bere momenturik politikoena, Arrifeko historia Euskal Herrikoarekin uztartzekoan sortzen da. Lotura puntua, eta liburuari izenburua ematen diona, Unamunoren poema bat da, non berriro ere, Unamunoren testu ezezagun bat sorosten den, eta Unamunoren momenturik dudazkoenetako bat maisukiro jasotzen duen, berriro ere haren biografia intelektualean errepikatuko ez den dudazko momentua:

Moroak gara behelaino artean?
Arrifi herbesteratuak?
Uhinaren iskanbilak itsasbeheran
atzean utzitako apar jadanik lehortua?
...
Europa berde hau, koipetsua,
zikoizkeriaz eta luxuz bigundua:
zelten lurralde hau,
ariano handiuste, buru-iritzi hauena,
zientziarekin eta errearekin bueltaka beti,
ez da herbestea? (2010: 138)

Egungo egoerara itzuliz, eta 2001ko irailaren 11-ko gertaerak eta gero sortu den giro neokolonial anti-musulmana bere gogoetara erakarriz, guztiok moro garela konkluditzen du. Hots, edozein herri-mailako borroka, hala nola Arrifekoa edota Euskal Herrikoa, orientalismo berri baten ondorioz, “moro borroka” bihurtu dela adierazi nahi digu Sarrionandiak. Unamunoren galderari, Sarrionandiak baietz erantzuten dio, guztiok garela moroak globalizazio amerikarraren behelaino artean (2010: 477).

Alabaina, baieztapenezko momentu hau ere bada Sarrionandiaren momenturik itsu eta desbideratuena. Izan ere, ordura arte euskaldunek Arrifeko gerlatan izan duten parte-hartze zuzenak eta historikoak balio izan badio ere Arrif-Euskal Herria lotura esplikatuz eta garatzeko, 1960ko hamarkadatik aurrera bi herrien arteko lotura historikoa eten egiten da eta lotura diskurtsibo, metaforiko, analogiko, sinekdokiko, edota silogistikoa bihurtzen. Hots, Sarrionandia da, ez historia, loturari eusten diona, hain zuzen Euskal Herrian estatu espainiarraren aurkako borroka armatua hasten den momentuan, hots ETaren sorreraz gero hedatzen den historian. Eta hor, berriro ere Sarrionandiak itzuri egiten dio ETaren arazoari. Are gehiago, itzuri egiten dio Euskal Herriko egoera osoari, azken aldera oso baieztapen apokaliptikoe-tan amaitzen badu ere. Eta apokaliptikotik tonu horrek, politikari uko egitera bortxatzen du Sarrionandia, halako diskurtso existentzialista pertsonalista utopiko batean amaitzeko. Literalki, Sartreri egiten dio erreferentzia bere saioaren azken aldean “askatasun existentziala” aldarrikatzeko:

Zapalketaren sareaz kontzientzia hartu eta boterearen eta gaindutakoaren parte ez sentitzea askatasunaren hatsarrea da. Pertsona horiek libreak dira ordutik aurrera, ezkutuan eta disimuluan beharbada, eta oraindik boterearen kontrako borroka irabazteko duten arren. Baina libreak dira jadanik, aukeratzeko gauza direlako.

Jean-Paul Sartreren hitzak gardenak dira, zentzu horretan [...]. Halako egoeran, askatasunaren aldeko pausu bakoitza “askatasun zati bat” zen. Hala kentzen du lokarrien zama gainetik jende menperatuak, ukazioen eta hertsaduren ordez, auto-gogoetaren eta antolaketaren bidez. (2010: 495-96)

Sartreren aipamenak eta askatasun existentzialistarenak berriro ere errepikatzen dira testuan (2010: 511-12), 60ko hamarkadako momentu politikoaren nostalgiaz ere nahasirik (2010: 514). Josu Bijuescak (2011) eta Mikel Asurmendik (2012) ere askatasunaren gaia aipatu dute liburuko ardatzat¹¹. Are gehiago, Euskal Herriari dagokionez, sekula lehenago azaldu

11. Bijuescak dio: “Eta hala ere, irakurri dutenek ez dute dudarik egingo Sarrionandiaren lana reader friendly dela, alegia, irakurlea adiskide duten horietakoa, idazleak bere solaskide egiten baitu; [...] orain botere egiturei buruzko hausnarketa eraginez; gero herri, gizarte talde eta gizabanako orori adorea emanek halabeharrezko menpekotasunak astindu eta gizakiaren halabehar bakarra, askatasuna alegia, onar dezan, ‘inork ere ez digulako askatasunaren kondena kommutatu, ez leundu, ez ondo esplikatuz oraindik’ (2011).

Hala Bijuescak zera konkluditzen du: “Gaitza litzateke horrenbeste gai, hizkuntz erregistro eta diskurtso mota biltzen dituen liburua esaldi bakar batez laburbiltzea baina bat aukeratu behar izatekotan aipaturiko hori, liburua ixten duen esaldi horixe bera hain zuzen ere, ez da desegokiena” (2011).

Asurmendik ere antzerakoa dio: “Liburuak ‘Askatasuna eta Tilili [askatasuna amazigeraz]’ aldarrikatzen du. Pertsona libre. Historia pertsonok egiten dugu, hots, garena gara eta izan nahi duguna” (2012).

ez duen ikuspuntu erlatibista eta, defektuz, liberal/tolerantea aurkezten du Sarrionandiak bere saioan:

Euskaldun batzuek uste dute euskal estatu independenterik eskuratzea ezinezkoa dela [...]

Beste euskaldun batzuek uste dute, independentzia ezinezkoa izan arren, euskaldunak ez direla hainbesteko gutiengoak. Gehiengoa ere badirela hainbat barrutitan [...] eta bestelako bizimoduak garatu behar direla autonomikoki.

Hirugarren batzuek uste dute estatua erdiestea derrigorrezkoa dela [...]

Laugarren batzuek pentsatzen dute estatuak ez direla jadanik erabakigarriak [...]

Lau ikuspegiak desberdinak eta kontradiktorioak dira. Baina osagarritzat ere har daitezke. Lauak dira errealista eta praktikoak. Eta abantaila handiak dituzte. Posiziorik ahulenak ere —inolako botererik erabiltzeari uko egingo liokeelako— itzelezko funtsa du. Egitasmo ederra da euskalduntasuna estatuaren eta boterearen ideiatik erabat apartatzea, biolentziaren eta boterearen monopolioa “gizon zuriari” utzirik. Ondo begiraturaz gero, *pribilegioa da arma, muga, lege edota zergarik ezartzen ez duen herri bat proposatzea*. (2010: 518, nire azpimarratzea)

Orain gutxi *Hausnart* aldizkariari eman zion elkarrizketa batean, Euskal Herriari eta ETArek borrokari buruz azaldu zituenak gogoraturaz, Sarrionandiaren joera existentzialista hori are harrigarriagoa egiten da:

Ez dut azken urteotako eztabaida horretan parte hartu, baina aldaketa onargarria dela uste dut. Hogeitaz hamar urte lehenago egin izan balitz hobe. ETAk estatuaren sparring papera luzarotan bete ondoren, biolentziaren kritika da egin behar dena, ‘kondena’ erretorikorik egin beharrik gabe ere. Azken hogeita hamar urteotan estatuaren aurka ibili garenok errekuperatu behar duguna legitimitatea da, geure herriko nahi kolektiboekin sintonia. Galdu egin dugulako neurri handian legitimitate hori, helburuekin kontraesanek ekinez askotan. Legalitatea baino askozaz inportanteagoa da legitimitatea. (Bereziartua 2011: 32)

Nola esplikatzen Arrifren kronika kolonialak saioaren amaiera aldera, Euskal Herrira etorri ahala, hartzten duen jira apokaliptiko existentziala? Hain zuzen Unamunoren existentzialismoaren itzalean erortzen dena, hura exorizatu beharrean, haren ikasle existentzialak ere Sarrionandia bihurtzen duena, askatasun anti-moderno baten eskaeran¹².

Galdera honi erantzun bete bat emateko, Sarrionandiaren literaturara, bere “estilo” edota estrategia diskurtsibora, itzuli behar dugu. Hasteko, azpimarratu behar da, Sarrionandiak azaltzen duen nostalgia bere hasiera literarioetako abangoardismoarekiko —hots, Koldo Izagirreren eraginez, ezkerreko

12. Existentzialismo hori hasieratik hor zegoela azpimarratu behar da. Iñaki Aldekoak dioen bezala, “Garai hartan euskal literaturako giroa iluna eta tristea zen. Existentzialismoaren eta konpromisoaren angustiak itotako literatura baten aurrean, literaturaren autonomia errebindikatu zuten Pott-ekoek, eta zulo itogarri horietatik egurasteko, bidaia eta ironia aukeratu” (1998:163).

Kortazarrek, dena den, Aldekoaren deskribapena zuzendu eta zehaztu du Sarrionandiarentzat: “Hori horrela bada ere, ez dugu alde batera utzi behar Sarrionandiak berak erakusten duen alde ilun eta tristea, alde nihilista, ondoren agertuko duguna” (2005: 64).

idazle ugarik oraindik ere sinesten eta praktikatzen duten abangoardismo irakurle-gabearekiko:

1960-80 bitarteko esperimentalismoak, ostera, mugak zabaltzea lortu zuen lengoia literario bideragarria asmatuz. Gabriel Arestik eta Jon Mirandek, Bernardo Atxagak eta Koldo Izagirrek proposaturiko hizkuntza naturalizat hartuko zuten hurrengoek. Baina lengoia literarioa aldi kontserbadore batera sartu zen gero, euskara batuaren trinkotzearekin eta arautzearekin loturik, alboan utzirik hizkera dialektalak eta esperimentalismoa. Normala da, eta beharrezkoa seguru, baina ez dira zertan isildu prozesu horretan gertatzen diren ideia faltsu eta erredukzionismo batzuk. (2010: 534)

Nostalgia hau, ironikoki, ETaren amaierari buruz egin dituen adierazpe-nei kontraktzen zaizkio, izan ere biak baitira abangoardiazko pentsamendu beraren bi gauzatze desberdin, literaturazkoa eta politikazkoa. Eta ironikoki ere, berriro ere Sarrionandiaren lanean literatura eta politika artean dagoen erlazio asimetricoa, edota kontrajarria, indartzen du goian aipatutako jarrerak. Sarrionandia maisu da, literaturaren barnetik, literaturtasunetik eta literaturaren autonomia instituzionaletik, munduaz eta errealtateaz idazten. Azken batean, Sarrionandia, Borges bera bezala, lehenik eta behin irakurlea baita, eta bere idazkerarik onena, irakurketa honen idazketa zatikako eta heterogeneotik dator. Sarrionandia liburutegiko idazle da. Liburutegia da errealtatearekiko distantzia sortzen duena eta distantzia horretatik errealtatearekiko irakurketa berri bat emateko Sarrionandia ahalbidetzen duena. Autore honen idazketaren erroan (eta Potterenean bere momentuan, hots *Etiopia*-n) dagoen estrategia literario honek, literatura eta errealtate arteko distantzia eskatzen du: literatur eremu autonomoaren eta heterogeneoaren arteko bereizketa eta distantzia ezabaezina —Bordieuren terminologia orain hedatuagoa erabiliz (1995).

Bi eremu hauek talka egiten duten lekuan eta momentuan, intersekziozko lekune-une arriskutsu horretan, Sarrionandiak ezin du idatzi, bere momentu traumatikora hurbiltzen baita, hots Euskal Herria eta ETA. Ironikoki, Sarrionandiak egin ezin duena, zuzeneko diskurtso erreferentzial bat erabiltzea da, Euskal Herriaz mintzatzeko. Eta hori dagienean, *Hausnart*-eko elkarrizketan bezala, Sarrionandiak bere indar diskurtsibo eta politiko guztia galtzen du; berea beste iritzi bat bihurtzen da, edozein hiritarrena bezalakoa, eta ETari dagokionez, etikoki berantiarra eta arduragabea ere juzga daitekeena.

Hain zuzen horregatik, hurbiltasun hori bere azken saioan, *Moroak gara*-n, narratzen saiatu denean, existentzialismo apokaliptiko batean amaitu du, seguruenik eragin eta garrantzia handirik izango ez duena Euskal Herrian. Izan ere, politikari uko egiten dion momentua baita berorri. Liburutegiko distantzia galdurik, Sarrionandia bere traumara are hurbiltzenago delarik, bere diskurtsoa politika liberalaren aldaki existentzialista bihurtzen da; politikari eta traumari itzuri egin diezaiokeen fantasia bihurtzen da Sarrionandiaren idazlana.

Beraz, hurbiltasunaren traumak Sarrionandiaren idazlana ezeztatzen duela esanez amaitu (eta kondenatu) behar al dugu bere lana? Ez. Hain zuzen, bere diskurtsoa, bere materialtasunean, bere zatikako heterogeneotasunean hartu eta onartu behar dugu. Izan ere, hurbiltasunaren ezinezko momentuari uko egiten dion une horretan, Sarrionandiaren zatikako heterogeneotasuna distantziatzko denean, urrutikoa denean, baita politikoen. Halako zerbait iradokitzen du esplizituki, literaturaz eta turismoaz mintzatzen denean:

Hala ere, ezagutza urrunetikakoa izango den arren, akaso ez dago urruneko jendea ezagutzeko modu hoberik literatura baino. Haien literatura, itzulia bada ere. Alternatiba, prezio ekonomikoan, turismoa da, egunero 'mundura' doazen bidaiari indibidual zenbatezin horiena, horda doratu horrena, bidaia egiten duenaren paperean. (2010: 450)

Moroak gara laneko lehen aldean azaltzen den bezala, Sarrionandiak oraindik ere ezagutzen ez genuen historia kolonial espainiarra erakutsi digu, eta are, historia horren biktima eta subjektu anticolonialista izan den herria maisukiro erreskatatu du, ez Beste oriental bezala, baizik eta Euskal Herriko historiarekin erabat lotuta dagoen gertaera bezala. Hots, Euskal Herriko historiaren alderdi "moroa" erakutsi digu; Euskal Herri afrikar baten genealogia egin digu. Ez da genealogia honen bertuterik txikiena, 1936ko Gerra Zibil espainiarrean altxatu ziren militar faxista gehienek lehenaldi koloniala eta beren pentsamendu kolonialista hain maisukiro azaltzea —gerra zibila irabazi zutenen pentsamendu eta kultura militarra koloniala zela azpimarratuz eta beraz, gerra zibila kolonialismo espainiarraren beste kapitulu kontraesankor bat zela adieraziz. Sarrionandiaren saioa irakurrita badakigu Gerra Zibila ere moroen kontrako gerra zela, euskaldunak eta errepublikarrak moro bihurtu zituena:

1909-1921eko Arrifeko gerlak, soldadu joan orduko gazteen Ameriketarako ihes antzeko emigrazioa eragiteaz gainera, euskaldunen iritzi antiespainola eta independentziaren aldekoa indartu zuen. Gerlak, ideiak erradikalizatzeko ahalmen horrekin, kontzientzia espainol ultranazionalista eta antieuskalduna ere hanpatu zuen, aldi berean, euskaldunen artean.

Joera bikoitz horrek 1936ko gerla zibilean egingo zuen talka, Afrikako Eiertzitoak, nazionalismo espainolaren banderarekin, Euskal Herria beste Arrif bat balitz bezala hartu zutenean, eta gudari askok, Errepublikaren defentsan, ez kontraesanik gabe, independentziaren bandera hartu zutenean. (2010: 363)

Historia "moro" honek, Afrika, Espainia eta Euskal Herriko kartografia eraldatzen du errotik eta berriro ere estatu-nazio berezitu eta desberdinen (Moroko, Espainia) zein oraindik ere nazio-estatu ez diren herrialdeen (Arrif, Euskal Herria) mapa irrebokableki eraldatzen, deformatzen, eta birmarratzen du. *Hau da Sarrionandiaren egiazko momentu politikoa, liburutegiaren distantziatik, literaturaren eremu autonomotik, bakarrik politiko bihurtzen dena*. Momentu honetan historia eta historiaren subjektuak beren heterogeneitatean berrazaltzen dira, beren ahotsak entzuten dira. Historia erradikal berri hau ezin da berriro ere aurrez bereganatu ditugun kategoria politikoen zakuan sartu.

3.3. Globalizazioa, subjektu multikulturala eta historia errotikakoa

Momentu hau, momentu errotik historikoa eta multikulturala dugu, izan ere Bestetasunaren mugak, Bestea Beste bezala eraikitzen duten ordena sinbolikoaren egiturak kritikatzan eta iraultzen ditu Sarrionandiak. Bere literatura multikulturala den heinean da politiko, eta beraz subjektuen heterogeneitate historikoa birpentsatzetik sortzen da Sarrionandiaren politika. Egungo globalizazioari kontrajartzen zaion historia heterogeneo bat idazten du Sarrionandiak beti, euskal Bestetasunetik abiatuz, Bestetasun hori historizatuz, bidean beste Bestetasun batzuen historia sorosiz eta berridatziz, maniobra berean. Hots, Atxagaren eta Uriberen kasuan ez bezala, hemen Bestetasuna da kinkan jartzen den objektu eta egitura politikoa. *Horregatik, Sarrionandiarentzat momenturik ez-politikoena hain zuzen, Euskal Herriaz, Euskal Herritik, euskaraz idaztea izango litzateke*. Bertatik atzerrian ere segitu nahi/beharraren arrazoi literario eta politikoa —arrazoi pertsonalak ez dakizkigu.

Oraindik Sarrionandiak goian aipatu lan gehienak idatzi ez zituenean, Azkorbebeitiak jada aipatu zuen autorearen ipuingintzan nagusi zela “kronotopo ideterminatuaren nagusitasuna” (1998: 42). Hots, Euskal Herria ez den beste edozein espazio-denborara bere idazketa zabaltzeko joerak definitzen zuen Sarrionandia gaztea halaber. Jon Kortazarrek aldiz zera gehitu dio Azkorbebeitiaren baieztapenari:

Kronotopo zehaztugabe horretan, ez dira ahaztu behar baina, espazioaren bazterrean egote horrek duen garrantzia. [...] bazterrearen bazterrak, [...] marginalia adierazten du, zentrotik urrun —zentro geografikotik, zentro politikotik, zentro ideologikotik urrun— dagoen zerbait adierazten du. (2005: 14)

Izan ere kronotopo zehaztugabe baina bazterrekoaren lekunea, Bestearena da. Bestea da bazterrearen subjektu espaziozko eta denborazkoa.

Imanol Galfarsoro izan da, nire ezagutzan, kritiko bakarra Sarrionandiaren kinka hau bere beste lan batean, *Munduko zazpi herrialdetako ipuinak*, aztertzen saiatu dena (2012)¹³. Liburu honetan azaltzen diren ipuin euskaldunak eta Besteak (japoniarra, saharamendebaltarra, eta abar) erkatuz, Galfarsorok Bestetasunaren galdera aurreratzen du testuinguru britainiar batetik, hots, berak bizi eta idazten duen testuingurutik:

So finally, talking of local nations and the state in Britain, what about then Joseba Sarrionandia's global *Tales from seven countries of the world* (2008)? Let me ruthlessly manipulate his work by asking this question first: Is there any way of establishing a comparison between the legendary British pragmatism, always triumphant in the face of adversity, and the no less legendary Basque propensity to subordination and the ensuing narcissism of the loser? The question is less foolish than it seems. For if only taking a look to the clear-cut multiculturalist strategy Sarrionandia deploys in his *Tales* (open-minded spirit of respect and tolerance of the other, celebration of diversity and minority-marginal cultures, hybridization, multicultural education, etc) does he not set out, *mutatis mutandi*,

13. *Gau ilunekoak* ipuina ere liburu horretan azaldu behar zen, baina azkenean berezirik atera zen. Bereizketa honen arrazoiak ere eztabaidatu beharko lirateke, analisi osotu baterako.

the same Anglo-Saxon logic of the absent centre (Zizek, 1999) secretly enacted as the unmarked political sign of a particular identity, as “the empty signifier, the norm, against which ‘difference’ (ethnicity) is measured”, in Stuart Hall’s words; (Conclusion U/SM, p. 221).

In other words, by reproducing and respecting the particular mores and customs of other ‘native’ cultures, does not Basqueness secretly occupy a privileged universal position in Sarrionandia’s *Tales*? (2012)

Alegia, Galfarsororen susmoa, orain artean aurkeztu dudana multikulturalismoaren politikaren aurkakoa da. Bere ustez Sarrionandiak ez baitu Euskal Herria historizatzen beste herri batzuen historiarekin elkar-lotuz, Bestetasuna historizatu eta kuestionatzeko bide bezala. Aitzitik hemen Sarrionandiak euskaldunak ez diren Beste horiek manipulatzeko dituela esaten du Galfarsorok, euskal subjektua —autore eta irakurle bezala— unibertsal bihurtzeko. Hots, euskal subjektua litzateke bere unibertsaltasunean Bestetua izateko arriskuari ekiditen diona eta beraz, lekune transzendental eta huts bat okupatuz, euskal subjektu hori beste edozein subjektu Bestetzeko parada politikoa suertatzen dena, bere (euskal) unibertsaltasun berriki irabazitik.

Galfarsorok, ezetz erantzuten dio hipotesi honi, baina euskal subjektu sarrionandiarraren unibertsaltasunari uko egin gabe. Bere iritziz, euskaltasunaren Bestetasun mitikoa erreskatatuz —euskalduntasunaren Bestetasun bortizkeriakoa eta traumatikoa— Bestetasun horri bere indar sinbolikoa kentzen dio Sarrionandiak. Hala, Bestetasunaren kategoriak indarra galtzen duenez, Sarrionandiak Bestetasunaz haratago dagoen espazio diskurtsibo unibertsal bat inauguratzen du, non euskal subjektua —eta Sarrionandiaren testuetan Beste bezala agertzen diren beste subjektu guztiak— subjektu politiko unibertsal, ez-markatu bihurtzen diren. Galfarsorok erabat elaboretzen ez badu ere bere hipotesia, espazio unibertsal politiko horretan, Bestetasuna bihurtuko litzateke inork okupa ez dezakeen espazio huts eta beraz zentralena:

However a closer look also allows the possibility of forcing a new interpretation whereby the tales put together in this book could reveal imaginary accounts of a bygone past. A past namely where the images of the Basque refugee, sailor and farmer fill in the mythical-phantasmatic image of the ‘authentic’ internal Other, much like the English bowler hat and umbrella wearing gentleman or the heroic King’s buccaneer who, if anything, also contribute to securing the hegemony of a universalised particularity.

Sarrionandia, therefore, under the guise of reclaiming a position of marginality also gives, nevertheless, a giant step towards removing the cultural *qua* ethnic vestiges of Basqueness from the surface level of external appearance as well as, most importantly, allocating the privileged empty space of universality to carve out its own course, as it were, towards the hegemony of the civic and the political. In other words, Sarrionandia envisages the Imaginary possibility of a truly post-independence scenario whereby the Real of antagonism in its surface national form has already been deprived of its traumatic *qua* violent-subjective kernel, whereby, that is to say, the substance of ethnicity has already dissolved into a civic symbolic order hegemonised by a new unmarked, empty signifier *qua* absent centre. As Zizek states in a recent paper called “Multiculturalism; The reality of an illusion”

(2010): “The truly unbearable fact for a multiculturalist liberal is an Other who effectively becomes like us, while retaining its specific features.” (2012)

Zizeken azken aipuak argi uzten duenez, Galfarsorok eta Zizekek berak sinesten dute, badela Bestetasunaz haratago sortzen den espazio bat, non Bestea hain zuzen gu bezalakoa bihurtzen den, eta beraz Beste izateari utzi-rik, bere espezifikotasunari eusten dion, hala Bestetasuna bihurtuz espazio politiko horren subjektu-gabeko ardatz zentral hutsa.

Sarrionandiak argi uzten duena hain zuzen, Galfarsororen eta Zizeken proposamenaren ezintasuna da, azken biok historiari uko egiten baitiote. Sarrionandiak ez du euskalduntasunaren Bestetasunaren muinean dagoen elementu edota gune traumatikoa ukatzen edo husten, Galfarsororen eta Zizeken pentsamendu postmarxistak nahiko lukeen bezala. Aitzitik, gune traumatiko hori onartu eta bete egiten du, historizatu egiten du, bere zertzelada bereziak, bere heterogeneotasun eta zatikotasun historikoan, sorosiz eta aldarrikatuz. Hots, Sarrionandiak garbi uzten du, Zizeken “Bestea gu bezalakoa bihurtzea, aldi berean bere zehaztasunei eutsiz” momentua ez dela existitzen, Bestetasunari ezin diogula uko egin, eta ukapen hori ezin dela unibertsalizatu.

Pentsamendu postmarxistak proposatzen edo imajinatzen du, oraindik ere badela momentu unibertsal bat, zeina egitura daitekeen subjektu partikular baten historia hustu eta ardatzat proposatuz (proletalgoaren historia opresiozkoa subjektu ororen opresio bihurtzen da). Fantasia politiko honen atzean zera dago, guztiok parte hartzen dugula espazio politiko bakar batean eta espazio politiko hori subjektu unibertsal baten bidez, bere unibertsalizazioaz, mobiliza daitekeela. Ikuspuntu honen atzean ere zera dukegu, guztiok egituratzen gaituela opresio/sufrimendu/trauma bakar batek: kapitalismoa.

Pentsamendu hau anakronikoa da, izan ere nazio-estatuaren kategoriari eutsi nahi dio, bertan subjektu bakar batek, proletalgoak, mobiliza baititzake beste subjektu guztiak, aurrez estatuak subjektu oro nazional bihurtu delako. Hots, estatuak gizabanako eta talde oro bihurtu du estatuaren subjektu eta beraz bere biolentziaren sufritzaile. Globalizazioa eta politika globala espazio bakar bat bezala pentsatzea, kategoria nazionalak globalizaziora aplikatzea suposatzen du —estatuaren espazio bakar nazionalaren nostalgiaz— eta zentzu horretan, postmarxismoa bihur daiteke globalizazioaren diskurtso maisu eta elite globalen diskurtso iraultzaile/zilegitzaille (klase proletarioaren iraultza klase ertain kontsumitzailearen iraultza global bihurtuz).

Sarrionandiak aitzitik garden azaltzen du, historiaren heterogeneotasun eta zatikakotasunetik abiatuz, Bestearen kategoria problematiza dezakegula, ez Bestetasun hori hustuz eta unibertsalizatuz, baizik eta aitzitik Bestetasun hori historizatuz. Materialtasun historiko horretatik abiatuz bakarrik pentsa baitezakegu globalizaziora kontra jarri dakioken politika multikultural bat. *Hausnart*-eko elkarrizketan azaldu duenez:

Kultura irekitasuna ez da batere inozentea, jakina, ekonomian merkatuaren irekitasuna ez den bezala. Derrigorrezkoa da zentzu kritikoa apur bat. *Marketing*

multikultural hori ez dator berez aniztasunari eskua ematera. Harrapakaritzza ekonomikoa eta bortizkeria politikoa estaltzeko maskara dela ere esan daiteke. Eta badago puntu klabe bat nire ustez. Gizarte neoliberal kontsumistak multikulturalismoa proposatzen du, baina kultura horien oinarri komunitarioak desagitzen ditu.... Merkatuko multikulturalismo horren aldean, derrigorrezkoa da *multikulturalismo kritiko bat*. Ez dut uste 'irekitasuna' denik borrokaren gaia, irekitasuna eta multikulturalismoa ondo dago. Navajoen, euskaldunen eta beste kultura askoren erresistentzia ez doa irekitasunaren kontra, baizik eta kultura horien oinarri komunitarioak berrantolatuzera. (Bereziartua 2011: 20-1, nire azpimarratzea)

Sarrionaidiaren distantzia heterogeneo, historiko eta zatikatuak argi uzten duenez, politika hori beti da historiko, beti heterogeneo, beti ere diferentziaren ontologiatik abiatzen dena, Deleuzek (1995) aspaldi defendatu zuen bezala.

4. BIBLIOGRAFIA

- ADORNO, Theodor (1983). *Prisms (Studies in Contemporary German Social Thought)*. New York: MIT Press.
- ALDEKOA, Iñaki (1998). *Mendebaldea eta narrazio gintza*. Donostia: Erein.
- AMSDEN, Alice H. (2003). *The Rise of "The Rest": Challenges to the West from Late-Industrializing Economies*. New York: Oxford University Press,
- APALATEGI, Ur (2001). "Pour une critique contextuelle des 'petites littératures.' Bernardo Atxaga : l'invention de l'écrivain Basque." *Lapurdum* 6 ; or. 7-18.
- ASURMENDI, Mikel (2012). "Izkiriaturik aurkitu dudane saiakera." Irunero, 2012-01. www.kritika.armiarma.com. 2012-6-1.
- ATUTXA, Ibai (2011). *Kanonaren gaineko nazioaz: euskal nortasunaren erreprezentazioei buruzko azterketa* Ziutateaz eta Bilbao-New York-Bilbao-n. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- ATXAGA, Bernardo (1978). *Etiopia*. Bilbo: Pott Liburutegia.
- (1988). *Obabakoak*. Donostia: Erein.
- (2009). *Zazpi etxe Frantziar*. Iruñea: Pamiela.
- (2009). *Lekuak*. Iruñea: Pamiela.
- AZKORBEBEITIA, Aitzpea (2006). "Euskal gatazka Joseba Sarrionandiaren testuen argitan". In Egaña, Ibon eta Edu Zelaieta, koor. *Maldetan sagarrak: Euskal gatazka euskal literaturan*. Bilbo: UEU. 151-67.
- (1998). *Joseba Sarrionandia: irakurketa proposamen bat*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- BADIOU, Alain (2001). *Ethics: An Essay on the Understanding of Evil*. New York: Verso.
- BAUMAN, Zygmunt (1998). *Globalization: The Human Consequences*. New York: Columbia University Press.
- (2000). *Liquid Modernity*. London: Polity Press.
- BECK, Ulrich (2000). *What is Globalization?* London: Polity Press.

- BEREZIARTUA, Gorka; OLARIAGA, Andoni (2011). "Elkar Hizketa: Joseba Sarrionandia." 12-34. <http://basque.criticalstew.org/wp-content/uploads/elkar-hizketa.pdf>. 2012-6-1.
- BERRIA (2012). "Aralarren, Alternatibaren, EAren eta ezker abertzalearen proposamen sozioekonomikoak burujabetza du oinarri." *Berria* 2012-5-12. www.berria.info. 2012-6-1.
- BIJUESCA, Josu (2011). "Moroak gara behelaino artean?" *Idatz & Mintz* (2011-12). www.kritika.armiarma.com. 2012-6-1.
- BONA, Mary Jo; MAINI, Irma, edk (2006). *Multiethnic Literature and Canon Debates*. Albany: State University of New York Press.
- BOTREL, Jean-François; CABELLO, Ana et. al. edk. (2011). *En los márgenes del canon: aproximaciones a la literatura popular y de masas escrita en español (siglos XX y XXI)*. Madrid: Los Libros de la Catarata : CSIC.
- BOURDIEU, Pierre (1984). *Distinction: A Social Critique of the Judgment of Taste*. Cambridge, MA: Harvard University Press.
- (1995). *The Field of Cultural Production: Essays on Art and Literature*. Cambridge: Polity Press in association with Blackwell Pub.
- BROWN, Dan (2003). *The Da Vinci Code*. New York: Doubleday.
- CASANOVA, Pascale (2007). *The World Republic of Letters*. New York: Harvard University Press.
- CERCAS, Javier (2001). *Soldados de Salamina*. Barcelona: Tusquets.
- DELEUZE, Gilles (1995). *Difference and Repetition*. New York: Columbia University Press.
- eta GUATTARI, Félix (1985). *Anti-Oedipus. Capitalism and Schizophrenia*. Minneapolis : University of Minnesota Press.
- ETXEBERRIA, Gillerimo, ed. (2008). *Postmodernitatea eta globalizazioa*. N.I.: Erroteta / Hiru Hego.
- FOUCAULT, Michel (1980). *Power/Knowledge: Selected Interviews and Other Writings, 1972-1977*. New York: Pantheon Books.
- (1978). *The History of Sexuality. I. An Introduction*. Trans. Robert Hurley. New York: Pantheon Books.
- FUKUYAMA, Francis (1992). *The End of History and the Last Man*. New York: Maxwell Macmillan International.
- GABILONDO, Joseba (2010). "Indifference as Terror: On State Politics and Basque Literature in Globalization." *Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura*. 25: 217-40.
- (2006). *Nazioaren hondarrak: Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*. Bilbo: EHU-ko Argitalpen Zerbitzuak.
- (2013). *New York – Martutene: euskal postnazionalismoaren utopiaz eta globalizazio neoliberalaren krisiaz (edo nola desiratuko dugu orain?)*. Bilbo: EHU-ko Argitalpen Zerbitzuak.
- GALFARSORO, Imanol (2012). "Antagonism, Contingency, Universality... and Absent Centre: Towards the Radical Emptying of Basque Ethnic Substance in Joseba

- Sarrionandia's *Tales from seven countries*." <http://eibar.org/blogak/volga/hegemonia-y-equivalencia-en-la-novela-vasca>. 2012-6-1.
- (2008). *Subordinazioaren kontra*. Iruña: Pamiela.
- GARCIA CANCLINI, Néstor (2001). *Consumers and Citizens: Globalization and Multicultural Conflicts*. Minneapolis: University of Minnesota Press.
- GARTZIA, Pruden (2011). "Kiribilaren antzea. Sarrionandiaren liburu baten iruzkina", *Jakin* 187: 99-113.
- GILSDORF, Ethan (2007). "Building Middle-Earth: 'The Lord of the Rings' Online." *The New York Times*. 2007-1-24. www.newyorktimes.com. 2012-6-1.
- GREVER, Maria; STUURMAN, Siep, eds. (2007). *Beyond the Canon: History for the Twenty-First Century*. Basingstoke ; New York : Palgrave Macmillan.
- HALL, Stuart (1996). "New Ethnicities." Morley, David and Kuan-Hsing Chen, eds. *Stuart Hall: Critical Dialogues in Cultural Studies*. New York: Routledge. 441-49.
- (2011). "The Local and the Global: Globalization and Ethnicity." King, Anthony D., ed. *Culture, Globalization and the World System: Contemporary Conditions for the Representation of Identity*. Minneapolis: University of Minnesota Press. 19-39.
- HARMON, Amy (2003). "Harry Potter and the Internet Pirates." *The New York Times*. 2003-7-14. www.newyorktimes.com. 2012-6-1.
- HARDT, Michael; NEGRI, Antonio (2000). *Empire*. Cambridge, MA: Harvard University Press.
- HARVEY, David (2005). *A Brief History of Neoliberalism*. New York: Oxford University Press.
- HIRST, Paul; THOMPSON, Grahame (1996). *Globalization in Question*. Cambridge: Polity.
- HOLLIER, Dennis, ed. (1989). "On Writing Literary History." *A New History of French Literature*. Cambridge, MA: Harvard University Press. xxi-xxv.
- HUNTINGTON, Samuel (1997). *The Clash of Civilizations and the Remaking of World Order*. New York: Touchstone.
- JAIO, Karmele (2004). *Amaren eskuak*. Donostia: Elkar.
- JAMESON, Fredric (1991). *Postmodernism, or, The cultural logic of late capitalism*. Durham, NC: Duke University Press.
- KORTAZAR, Jon (2005). *J. Sarrionandiaren ipuingintza: zuhaitz erromesa*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- MAN BOOKER PRIZES (2008). "Midnight's Children wins the Best of the Booker." <http://www.themanbookerprize.com>. 2012-6-1.
- MARTINEZ DE LEZEA, Toti (2008). *La herbolera : una joven curandera acusada de brujería*. Madrid: Maeva.
- (2007). *La calle de la judería: una familia judeoconversa en el siglo XV*. Madrid: Maeva.
- MORRISON, Toni (1987). *Beloved: A Novel*. New York: Knopf.
- MUÑOZ, Jokin (2005). "Ohe azpia". In Egaña, Ibon eta Edu Zelaieta, koor. *Maldetan sagarrak: Euskal gatazka euskal literaturan*. Bilbo: UEU. 92-104.

- NEW YORK TIMES. (N.d.). "What Is the Best Work of American Fiction of the Last 25 Years?" *The New York Times*. www.newyorktimes.com. 2012-6-1.
- REUTERS (2009). "The Latest Novel from 'Da Vinci Code' Author Dan Brown, 'The Lost Symbol,' Broke One-Day Sales Records, Its Publisher and Booksellers Said." 2009-9-16. www.reuters.com. 2012-6-1.
- RODRIGUEZ BILBAO, Goetti (2011). "Joseba Sarrionandiari Euskadi sariaren dirua emango dio Jauraritzak." *Berria*. 2011-11-23. www.berria.info. 2012-6-1.
- ROWLING, J.K (2009). *Harry Potter Paperback Box Set (Books 1-7)*. London: Arthur A. Levine Books.
- RUSHDIE, Salman (1980). *Midnight's Children*. New York: Penguin.
- SARRIONANDIA, Joseba (1981). *Izuen gordelekuetan barrena*. Bilbo: Bilboko Aurrezki Kutxa.
- (1985). *Ni ez naiz hemengo*. Pamiela, Iruñea.
- (1988). *Marginalia*. Donostia: Elkar.
- (1997). *Hitzen ondoeza*. Tafalla: Txalaparta.
- (2001). *Lagun izoztua*. Donostia: Elkar.
- (2008a). *Munduko zazpi herrialdetako ipuinak*. Pamiela, Iruñea.
- (2008b). *Gau ilunekoak*. Donostia: Elkar.
- (2010). *Moroak gara behelaino artean?* Pamiela, Iruñea.
- STEARNS, Peter N. (2006). *Consumerism in World History: The Global Transformation of Desire*. New York: Routledge.
- TOLKIEN, J. R. R. (N.d.). *The Lord of the Rings*. New York: Houghton Mifflin,
- URIBE, Kirmen (2001). *Bitartean heldu eskutik*. Zarautz: Susa.
- (2008). *Bilbao – New York – Bilbao*. Donostia: Elkar.
- UTIKAN EUSKADI SARIAK (2007). "Utikan Euskadi Sariak". www.utikan.com. 2012-11-1.
- ZIZEK, Slavoj (2000). *The Ticklish Subject: The Absent Centre of Political Ontology*. London: Verso.